BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3095

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 19koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa Enplegu Lagunduaren jardunak garatzera bideratutako laguntzei buruzko deialdia –2013ko ekainaren 17ko bilkuran Lanbideren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabaki bidez onartua– argitaratzen da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2013ko ekainaren 17ko bilkuran hartutako erabaki bidez, onartu du desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa Enplegu Lagunduaren jardunak garatzera bideratutako laguntzei buruzko deialdia, eta maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluaren p) idatzi-zatian ezarritakoaren arabera, erakunde autonomo honetako zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Adierazitako guztiarengatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa Enplegu Lagunduaren jardunak garatzera bideratutako laguntzei buruzko deialdia argitaratzea; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onartu zen, 2013ko ekainaren 17ko bilkuran hartu zuen, eta ebazpen honen eranskin gisa jasota dago.

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabakiak.

Hirugarrena.– Jakinaraztea deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabakiaren kontra berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 19a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

ERANSKINA

DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK LAN MERKATU ARRUNTEAN INTEGRATZEKO NEURRI GISA ENPLEGU LAGUNDUAREN JARDUNAK GARATZERA BIDERATUTAKO LAGUNTZEI BURUZKO DEIALDIA

Desgaitasunak dituzten pertsonak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 37.1 artikuluari jarraiki, desgaitasunak dituzten langileen inguruko enplegu-politikaren funtsezko helburuak honako hau izan behar du: langile horiek lan-sistema arruntean integratzea (tratu-berdintasunaren printzipioaren aplikazioa bermatuko duten baldintzetan), edota, halakorik ezean, lan babestuaren formula bereziaren bidez (enplegu-zentro berezien bitartez) produkzio-sisteman sartzea.

Azaroaren 27ko 2000/78/EE Zuzentarauak –enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoak– eta pertsona ezinduen aukera-berdintasuna, bazterketarik eza eta mugierraztasun unibertsala lortzeko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen bitartez estatuan izan duen ondorengo garapenak biltzen dute ezinbestekoa dela Administrazio Publikoek ekintza positiboko neurriak –hainbat pertsonak politikaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorretan dituzten desabantailak saihestera edo konpentsatzera bideratuta daudenak– hartzea.

Azken urteotan, administrazio publikoen, gizarte-solaskideen eta desgaitasunaren inguruko elkarte-sarearen konpromiso tinkoari eta jardun bateratuari esker, araudi, programa eta aurrekontu garrantzitsuak egin dira desgaitasunak dituztenek enplegua errazago lortzeko, eta emaitza positiboak eman dituzte, desgaitasunak dituzten gero eta pertsona gehiago txertatu baitira lan-merkatuan. Desgaitasunak dituzten langileei bideratutako enplegu-politika aktiboak areagotzen jarraitu behar da eta ekintza horiek hedatzen jarraitu behar da formula berriak bilatuz, formula horien lehentasuna lan-merkatu arruntean laneratzea izanik.

Formula berri horiek desgaitasunak dituen biztanleriaren ezaugarri den aniztasuna eduki behar dute kontuan, eta modu desberdinean artatu behar da desgaitasunak dituzten langileen talde bakoitzaren eskaeren eta premien arabera; era berean, lan-ingurune inklusiboak faboratzeko premia dago, ikuspegi arkitektonikotik ez ezik, komunikazioaren eta lanpostu antolamenduaren ikuspegitik ere egokituta daudenak.

Izan ere, desgaitasunak dituzten pertsonen multzoaren barruan, zenbait taldek lan-merkatura sartzeko zailtasun handiagoak dituzte, desgaitasun motaren edo beren desgaitasun-mailaren eraginez. Errealitate horrek eskatzen du neurri espezifikoak hartzea, ekintza positiboko neurritzat har daitezkeenak; izan ere, hurbiltze biziagoak eta bereiziagoak dira, desgaitasunak dituzten eta laneratzeko zailtasun handiagoak dituzten langileen enplegagarritasuna areagotzeko nahiz enpresa arruntek ematen dituzten lan-erantzunak txertatzeko gaitasuna sustatzeko.

2011-2014 aldirako Enpleguaren Euskal Estrategiak 4. ardatzaren («Laneratzeko aukera-berdintasuna bermatzea») helburu orokorraren barruan ezartzen du bere 14. norabidean gizarteratzea sustatzeko eta pertsona talde kalteberenen enplegu-tasa handitzeko premia, eta gomendatzen du erakunde publikoetan nahiz Hirugarren Sektoreko erakunde eta zentroetan laguntza indibidualizatuan, bitartekaritzan eta Enplegu Lagunduan, komunikazioan eta enpresa-sarearekiko informazioan espezializatutako teknikariak izateko aukera ematen duten neurriak eta programak sustatzea, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituztenen laneratzea eta lanpostua mantentzea ahalbidetuz.

Aurreko guztiarekiko koherentea izanda, Enplegu Lagundua da desgaitasun larriak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzea beste edozein neurrik baino indar handiagoz bultza dezakeen neurrietako bat. Esku hartzeko metodologia horrek laguntza emateko jarduera multzo bat biltzen du, kontratazioaren aurretik nahiz dagokion pertsona lanpostuan hasi ondoren garatzen direnak: enplegu-aukerak bilatzea, atzemandako enplegu-eskaintzaren ezaugarrien eta baldintzen azterketa zehaztua, postuaren profilaren eta desgaitasunak dituen pertsonak postua behar bezala betetzeko eduki behar dituen gaitasunen arteko doiketa, eskatzen baldin badira, postuaren ezaugarrien eta eskakizunen arrazoizko egokitzea, postuan emandako prestakuntza eskatzen diren gaitasun profesionalak lortzeko, sentsibilizazioa, prestakuntza eta laguntza ematea enpresaren antolaketari orokorrean, eta, bereziki, desgaitasunak dituen pertsonarekin funtzionalki jarduten duten langileei, laneratzeko hasierako laguntza eta epe luzerako jarraipen indibidualizatua desgaitasunak dituen pertsonaren eta enpresaren garapena eta gogobetetze-maila ebaluatzeko. Metodologia horri esker, laneratzeko zailtasun bereziak dauzkatela desgaitasunak dituzten langileek lan-merkatu arrunteko enpresetan gauza dezakete beren jarduera eta antzeko lanpostuak betetzen dituzten gainerako langileen antzeko baldintzetan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikita dagoena, honako helburu hau betetzeko sortu zen: enplegu egonkor eta kalitatezkorako eskubidearen garapen osoari laguntzea, eta langileen enplegagarritasuna bermatzen modu eraginkorrean lagunduko duen lan-merkatuaren garapenaren alde lan egitea, eta enpresaren eskakizunei egokitutako langileen premiak asetzea, baita gizartearen eta lurraldearen kohesioari laguntzea ere, betiere esleitzen zaizkion enplegu-politikak kudeatuz eta lan-arloko legeria egikarituz, urriaren 13ko 3/2011 Legean ezarrita dagoenaren arabera.

Lanbidek bere helburuak betetzeko, honako eginkizun hauek ditu bere esku, besteak beste: enplegu-programen kudeaketa, enplegurako prestakuntza eta autoenpleguaren sustapena eta enpresen sorrera, baita laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzako enplegu-programa espezifikoak egitea ere, diruz lagun daitezkeen deialdiak egitea eta onartzea barne.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honetako Administrazio Kontseiluak 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa Enplegu Lagunduaren jardunak garatzera bideratutako laguntzei buruzko deialdia onartu du, honako baldintza hauek kontuan hartuta:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– Deialdi honen xedea oinarriak ezartzea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honetako 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeei 2013. urtean eman ahal izango dizkien laguntzak arautzea da. Laguntza horiek Enplegu Lagunduaren jardunak garatzeko izango dira laneratzeko zailtasun handiagoak dituzten eta desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzeko aukera areagotzeko neurri gisa.

2.– Enplegu Lagunduko jardunak Euskal Autonomia Erkidegoan garatu beharko dira.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 850.000 euro izango dira guztira; horietatik 425.000 euro 2013ko aurrekontu arruntarenak izango dira eta 425.000 euro 2014rako konpromiso-aurrekontuarenak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarenak.

Eman beharreko laguntzen bolumen osoak ezin izango du kopuru hori gainditu, ezta, indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontuaren aldaketak onartzen badira, eguneratze horiek gehitzearen eraginez sortuko den zenbatekoa ere, eta dagokion moduan jakinaraziko da zirkunstantzia hori.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen ekintzak.

1.– 2013ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitarte garatutako Enplegu Lagunduko jardunek jaso ahalko dute diru-laguntza deialdi honen babesean.

Honako hau hartzen da Enplegu Lagunduaren jardun gisa: zailtasun bereziak dauzkatela desgaitasunak dituzten pertsonak –6. artikuluan laguntza-programa honen azken jasotzaile gisa definituta daudenak– lan-merkatu arruntean laneratzera bideratutako jardunak, erakunde onuradunetako langile espezializatuek gauzatzen dituztenak, eta Enplegu Lagunduaren Unitateak deiturikoak osatzen dituztenak deialdi honen ondorioetarako, 5. artikuluan araututako osaera eta eginkizunak dituztenak, eta desgaitasunak dituzten pertsonak enpresa arruntean txertatu aurreko jardunak biltzen dituztenak, baita lanpostuan bertan gauzatu behar diren jardunak (ondoren azalduko direnak) biltzen dituztenak ere. Aipatutako jardunak honako hauek dira:

a) Lanpostuan hasi aurretik:

– Informazioa eta sentsibilizazio enpresa arruntean.

– Diru-laguntzaren xede den kolektiborako egokitutako banako enplegu-aukerak bilatzea eta jasotzea.

– Lanpostuak identifikatzea eta haien azterketa zehatza egitea: enplegu-garapenaren ezaugarriak eta baldintzak ezartzea informazio garrantzitsu eta beharrezko guztia lortzeko.

– Desgaitasunak dituzten pertsonak postu hori garatzeko beharrezkoak diren ahalmenekin identifikatzea.

– Postuaren profilaren eta postu hori garatzeko hautatutako desgaitasuna duen pertsonaren arteko bateragarritasunari buruzko azterketa.

– Postuaren ezaugarrien eta eskakizunen arrazoizko egokitzearen premia potentzialak atzematea.

b) Lanpostuan:

– Prestakuntza indibidualizatua postuan eskatzen diren lanbide-gaitasunak lortzeko, langilea bere postuan eta lan-ingurunean sartzea optimizatzeko.

– Sentsibilizazioa, prestakuntza eta laguntza ematea enpresaren antolaketari orokorrean, eta, bereziki, desgaitasunak dituen pertsonarekin funtzionalki jarduten duten langileei.

– Postuaren ezaugarriak eta eskakizunak direla medio eskatzen diren arrazoizko egokitzapenak bideratzea.

– Epe luzerako laguntza pertsonalizatua eta banako jarraipena: laneratu ondoren, ezarri da kontratatutako pertsonaren eta enpresaren arteko jarraipenari eutsi behar zaiola laneratzea behar bezala garatzen dela bermatzeko, eta postuaren jardueran egon daitezkeen aldaketen edo lan-ingurunean izandako aldaketaren ondorioz sortzen diren prestakuntza- eta egokitze-premiei erantzuteko.

– Ebaluazioa: prozesu osoaren garapena balioestea, baita gogobetetze-maila ere, desgaitasunak dituen pertsonaren aldetik zein enpresaren aldetik.

2.– Laguntza lortzeko, Enplegu Lagunduaren jardunak lotuta egongo dira enplegu-aukeraren prospekzioko eta desgaitasunak dituzten pertsonak enpresa arruntetan txertatzeko jardunen helburuak lortzearekin eta horretarako hartutako konpromisoarekin, 7. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera; helburu horiek diru-laguntza lortzea eta diru-laguntza horren zenbatekoa ezartzen dute.

Laneratzeko helburuak betetzeari dagokionez, Enplegu Lagunduaren jardunak jasoko dituzten eta desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arrunteko enpresa batek kontratatu beharko ditu eta enpresaren egiturako lanpostu batean enplegatu beharko dira egiaz, kontratu mugagabe edo iraupen mugatuko kontratu bat eginez, betiere kontratuaren iraupena 6 hilabetekoa bada gutxienez. Lanaldi partzialeko kontratazioa bada, lanaldi osorako konparagarria den langile baten jardunaren gutxienez % 35 izango da dagokion jarduna.

3.– Era berean, honako hauek jaso dezakete diru-laguntza hau: 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen enpresa arruntetan kontratatutako pertsonei jarraipena egiteko eta laguntza emateko jardunak, artikulu honetako 1. paragrafoan aurreikusitako denbora-eremuan gauzatutakoak, laneratzea behar bezala garatzen dela bermatzeko, baita postuaren jardueran izan daitezkeen aldaketen edo lan-inguruneko aldaketaren ondorioz sor daitezkeen prestakuntza- eta egokitze-premiak estaltzeko eta lanpostuei eusten laguntzeko ere.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Honako hauek izango dira Enplegu Lagunduaren jardunak garatzeko diru-laguntzen onuradunak: irabazi-asmorik gabeko elkarteak, fundazioak eta bestelako erakundeak, eta Enplegu Zentro Bereziak, horrela kalifikatuta eta inskribatuta daudenak, EAEn kokatuta daudenak, eta honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

– Helburu sozialtzat, besteak beste, desgaitasunak dituzten pertsonak laneratzea edo haien aldeko enplegua sortzea.

– Beren plantillan Enplegu Lagunduaren Unitatea osatzen duten prospekziogile teknikariak eta lan-prestatzaile espezializatuak izatea, hurrengo artikuluan aurreikusiko diren baldintzen arabera.

– Esperientzia egiaztatua izatea zailtasun bereziak dauzkatela desgaitasunak dituzten pertsonak laneratzeko programen garapenean, Administrazio Publikoek eta/edo Europako Funtsek diruz lagundutako programen garapenean, alegia.

– Enplegu Lagunduaren jarduerak dohainik egitea, langileei edo enpresei zenbatekorik edo tarifarik kobratu gabe edo haiengandik ezer jaso gabe.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutakoaz gain, erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Diru-laguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikuluak xedatzen duenari jarraiki.

b) Ez izatea diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zehapen penalik edo administrazio-zehapenik, ez egotea horretarako desgaitzen dituen debeku baten pean, sexuagatiko bereizkeriagatik sortutakoak barne, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki (hona ekarri 13. artikuluan xedatutakoa).

3.– Onuradunei diru-laguntzak eman eta, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetze-fasean dagoen edozein itzulketa- edo zigor-prozedura amaitzea.

5. artikulua.– Enplegu Lagunduko unitateen osaera eta eginkizunak.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko, prospekziogile batek eta lan-prestatzaile batek osatu behar dute, gutxienez, Enplegu Lagunduko oinarrizko unitatea.

2.– Ulertu ahal izango da Enplegu Lagunduaren lantaldeak osatzen dituzten pertsonek aukera izango dutela modu partekatuan eta anitzean garatzeko profil guztietako eginkizunak, betiere artikulu honetako 4. paragrafoan ezarritako esperientziaren eta titulazioaren inguruko baldintzak betetzen badituzte.

Lantalde bat bi pertsonak edo gehiagok osatzen badute, lantalde hori osatzen duten profesionalen erdiek gutxienez artikulu honetako 4. eta 5. paragrafoetan ezarritako titulazio- eta esperientzia-baldintzak bete beharko dituzte, eta lantaldearen beste erdiek titulazioaren baldintza artikulu honetako 4. eta 5. paragrafoetan titulaziorik ez baldin badago ezartzen den lanbide-esperientziarekin ordeztu ahal izango dute.

3.– Nolanahi ere, Enplegu Lagunduaren Unitateak eratuko dira bi lanbide-figura horien artean lantaldeen osaeran behar den orekari eusteko, laneratzeko helburuak lortu direla bermatzeko.

4.– Prospekzio-ekintzak erdi-mailako edo goi-mailako unibertsitate-prestakuntzako gutxieneko titulazioa duten profesionalek gauzatuko dituzte, eta profesional horiek egiaztatu beharko dute desgaitasunarekin lotutako enplegu-aukeren prospekzioan eta/edo zailtasun bereziak dauzkatela desgaitasunak dituzten pertsonak laneratzen laguntzeko urtebeteko esperientzia izan dutela aurretik.

Erdi-mailako edo goi-mailako unibertsitate-prestakuntzako gutxieneko titulazioa ez da eskatuko egiaztatzen bada desgaitasunarekin lotutako enplegu-aukeren prospekzioan eta/edo zailtasun bereziak dauzkatela desgaitasunak dituzten pertsonak laneratzen laguntzeko gutxienez 5 urteko esperientzia izan dutela aurretik.

Bi kasuetan ere, proposatutako pertsonak egindako lan-kontratuak aurkeztuta egiaztatuko da esperientzia, betetako eginkizunak egiaztatuko dituen enpresa-ziurtagiri batekin batera.

Honako hauek dira prospekziogileek garatu beharreko eginkizunak, desgaitasunak dituzten pertsonak lanpostuan hasi aurretik betiere:

– Informazioa eta sentsibilizazioa enpresa arruntei.

– Jardunetako kolektiborako egokitutako banako enplegu-aukerak bilatzea eta jasotzea.

– Lanpostuak identifikatzea eta haien azterketa zehatza egitea: enplegu-garapenaren ezaugarriak eta baldintzak ezartzea informazio garrantzitsu eta beharrezko guztia lortzeko.

– Postuaren ezaugarrien eta eskakizunen arrazoizko egokitzearen premia potentzialak atzematea.

5.– Lan-prestatzaileek goi-mailako lanbide-heziketako edo haren baliokidea den gutxieneko titulazioa beharko dute, eta aldez aurreko gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatu zaitasun bereziak dauzkatela desgaitasunak dituzten pertsonak prestatzeko edota haiei laguntzeko jardueretan.

Goi-mailako lanbide-heziketako edo haren baliokidea den gutxieneko titulazioa ez da eskatuko egiaztatzen bada zaitasun bereziak dauzkatela desgaitasunak dituzten pertsonak prestatzeko edota haiei laguntzeko jardueretan gutxienez 5 urteko esperientzia izan dutela aurretik.

Bi kasuetan ere, proposatutako pertsonak egindako lan-kontratuak aurkeztuta egiaztatuko da esperientzia, betetako eginkizunak egiaztatuko dituen enpresa-ziurtagiri batekin batera.

Honako hauek dira lan-prestatzaileek lanpostuan garatu beharreko eginkizunak:

– Prestakuntza indibidualizatua postuan eskatzen diren lanbide-gaitasunak lortzeko, langilea bere postuan eta lan-ingurunean sartzea optimizatzeko.

– Sentsibilizazioa, prestakuntza eta laguntza ematea enpresaren antolaketari orokorrean, eta, bereziki, desgaitasunak dituen pertsonarekin funtzionalki jarduten duten langileei.

– Epe luzerako laguntza pertsonalizatua eta banako jarraipena: laneratu ondoren, ezarri da kontratatutako pertsonaren eta enpresaren arteko jarraipenari eutsi behar zaiola laneratzea behar bezala garatzen dela bermatzeko, eta postuaren jardueran egon daitezkeen aldaketen edo lan-ingurunean izandako aldaketaren ondorioz sortzen diren prestakuntza- eta egokitze-premiei erantzuteko.

– Ebaluazioa: Prozesu osoaren garapena balioestea, baita gogobetetze-maila ere, desgaitasunak dituen pertsonaren aldetik zein enpresaren aldetik.

6.– Prospekziogileek eta lan-prestatzaileek honako eginkizun hauek garatuko dituzte elkarrekin:

– Desgaitasunak dituzten pertsonak postu bakoitza garatzeko beharrezkoak diren ahalmenekin identifikatzea.

– Postuaren profilaren eta postu hori garatzeko hautatutako desgaitasuna duen pertsonaren arteko bateragarritasunari buruzko azterketa.

– Postuaren ezaugarriak eta eskakizunak direla medio eskatzen diren arrazoizko egokitzapenak bideratzea.

7.– Enplegu Zentro Berezien kasuan, Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateak osatzen dituzten bestelako profesionalek garatu beharko dituzte Enplegu Lagunduko jardunak.

8.– Kausa justifikatuak direla medio, jardunak garatzen diren bitartean, lanpostuak hutsik geratzen badira Enplegu Lagunduaren Unitateak osatzen dituzten langileen artean, pertsona horiek artikulu honetan ezarritako irizpideei eta baldintzei eutsiz ordeztuko dira.

Enplegu Lagunduaren profesional taldean gerta litezkeen aldaketak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazi beharko zaizkio, eta Lanbidek onartu egin beharko ditu. Lan-prestatzailea edota -prospekziogilea aldatu behar denean, aldaketa-eskaerak adieraziko dut zein den ordeztutako pertsona eta lanean hasteko proposatutako pertsonari eskatutako curriculum vitaea eta titulazioaren eta lanbide-esperientziaren egiaztagiriekin batera aurkeztuko da.

6. artikulua.– Azken hartzaileak.

1.– Deialdi honen babesean diruz lagundutako Enplegu Lagunduaren jardunen azken hartzaileak desgaitasunak dituzten eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile langabe gisa erregistratuta dauden pertsonak izango dira, baita Enplegu Zentro Bereziek kontratatutako desgaitasunak dituzten langileak ere, betiere ondoren deskribatuko diren kasuetakoren batean baldin badaude:

% 33ko edo hortik goragoko aitortutako mailako adimen-desgaitasuna duten, gaixotasun mentala duten edo garun-paralisia duten pertsonak.

% 65eko edo hortik gorako aitortutako mailako desgaitasun fisikoa edo sentsoriala dute pertsonak, edo % 33ko edo hortik gorako aitortutako minusbaliotasun-maila duten gorrak edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonak.

2.- Enplegu Lagunduaren jardunen ondorioz enpresa arrunt batean kontratatutako desgaitasunak dituen langilea Enplegu Zentro Berezi bateko plantillakoa bada, borondatezko eszedentzia hartuko du zentro horretan martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 46.2 eta 5 artikuluetan, eta, hala badagokio, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako baldintzen arabera.

7. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– Diru-laguntzaren helburua da erakunde onuradunen Enplegu Lagunduaren Unitatea osatzen duten profesionalen lan-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak ez ezik, Enplegu Lagunduaren jardueratik eratorritako administrazioko, koordinazioko eta leku-aldaketako gastu orokorrak finantzatzea, betiere 2013ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitarteko aldian egin badira.

Finantzatzen diren gastu guztiak lotuta egongo dira enplegu-aukeraren prospekzioko eta desgaitasunak dituzten pertsonak enpresa arruntetan txertatzeko jardunen helburuak lortzearekin eta horretarako hartutako konpromisoarekin.

Lokalen erabilerari, jakinarazpenei eta material suntsigarriari eta bulegoko materialari dagozkion ohiko gastuak hartuko dira gastu orokortzat.

Diruz lagun daitekeen gastutzat hartuko da, halaber, 12.1.b) artikuluak aipatzen duen auditoria-txostenaren kostua.

2.– Honako hauen arabera ezartzen da diru-laguntzaren zenbatekoa:

a) 6.1 artikuluan aipatzen den desgaitasun mota eta gradua duten eta EAEko lan-zentroetan Enplegu Lagunduaren ekintzen hartzaileak izango diren langileen kopurua, honako baldintza hauen arabera:

– 7.800 euro adimen-desgaitasuna duen pertsona bat, gaixotasun mentala duen pertsona bat edo garun-paralisia duen pertsona bat % 33ko edo hortik goragoko aitortutako maila duela gutxienez urtebeteko kontratuarekin laneratzen den bakoitzean.

– 6.600 euro adimen-desgaitasuna duen pertsona bat, gaixotasun mentala duen pertsona bat edo garun-paralisia duen pertsona bat % 33ko edo hortik goragoko aitortutako maila duela gutxienez 6 hilabeteko kontratuarekin laneratzen den bakoitzean.

– 4.700 euro % 65eko edo hortik gorako aitortutako mailako desgaitasun fisikoa edo sentsoriala duen edo % 33ko edo hortik gorako aitortutako minusbaliotasun-mailako gor bat edo entzuteko desgaitasuna duen pertsona bat gutxienez urtebeteko kontratuarekin laneratzen den bakoitzean.

– 4.000 euro % 65eko edo hortik gorako aitortutako mailako desgaitasun fisikoa edo sentsoriala duen edo % 33ko edo hortik gorako aitortutako minusbaliotasun-mailako gor bat edo entzuteko desgaitasuna duen pertsona bat gutxienez sei hilabeteko kontratuarekin laneratzen den bakoitzean.

– Laneratu eta kontratatu beharreko pertsona hori emakumea bada, % 10 gehituko dira aurreko paragrafoetan aurreikusitako diru-laguntzaren zenbatekoak.

Diru-laguntza horiek proportzionalki murriztuko dira lanaldiaren iraupenaren arabera, baldin eta kontratua denbora partzialekoa bada, 3.2 artikuluan ezarritako lanaldiaren gutxieneko mugarekin.

b) Enplegu-aukeren prospekzioko, bilaketako eta atzemateko jardueraren bolumena, prospekzio-profesional bakoitzak egindako bisiten bitartez kontaktatutako enpresen arabera, gutxienez 100 enpresa eta gehienez 200 enpresa izatea ezarri da, eta gehienez ere 39.100 euroko zenbatekoko diru-laguntza eta diruz lagundu beharreko zenbatekoa proportziozkoa izango da bisitatutako enpresa kopuruarekiko eta prospekzioko profesional bakoitzaren lanaldi-dedikazioko ehunekoarekiko (% 50 gutxienez izango da gutxienez).

c) 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen enpresa arruntetan kontratatutako pertsonei jarraipena egiteko eta laguntza emateko jardunei gehienez ere 850 euroko diru-laguntza emango zaie jarraipena egiten zaion pertsona bakoitzeko, eta ezein kasutan ere ezin izango du jarraipen- eta laguntza-jarduera horiek egiten dituen lan-prestatzailearen soldata-kostuaren eta Gizarte Segurantzaren % 25 gainditu.

d) Gastu orokorrak, administraziokoak, koordinaziokoak eta leku-aldaketenak, eta auditoria-txostena, guztiak ere diruz lagun daitezkeen gastu gisa egotzi daitezkeenak, Enplegu Lagunduko Unitatea osatzen duten langileen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzari buruzkoen baturaren % 10 izango dute gehienekotzat, betiere diruz lagun badaitezke eta aurreikusitako helburuak lortzearekin justifikatzen badira.

3.– Aurreko paragrafoaren a), b) eta c) letretan adierazitako kontzeptuengatik emandako zenbatekoak ezin izango ditu Enplegu Lagunduko jardunetan parte hartzen duten profesionalen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak gainditu.

8. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak jasotzeko eskaerak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira I. eranskinean jasotako ereduaren arabera, eta honako toki hauetan eskuratu ahal izango da hori: http://lanbide.net web-orrian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentraletan edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lurraldeetako enplegu-bulegoetan.

Horretaz gain, eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

2.– Eskaera-orriarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Diru-laguntza hartuko duen erakundearen memoria deskribatzailea, gutxienez ere honako hauek zehaztuz:

– Kokapen fisikoaren xehetasuna eta jarduteko lurralde-eremua.

– Helburu soziala, jardun-eremuak eta erakundearen organigrama.

– Enplegu lagunduaren Unitatea osatzen duten prestatzaileen eta prospekziogileen zerrenda, langile horien curriculum vitaea, titulazioa eta eskatutako esperientzia egiaztatzen dituen dokumentazioa, urteko lanaldia eta lan-arloko prestakuntzako edota prospekzioko jardueran duten dedikazioa, betiere Enplegu Lagunduaren jardunekin loturik. Proposatutako pertsona bakoitzari egindako lan-kontratuen bidez egiaztatuko da esperientzia, baita betetako eginkizunak egiaztatuko dituen enpresa-ziurtagiriaren bidez ere.

– Administrazio Publikoek edota Europako Funtsek diruz lagundutako Enplegu Lagunduaren prozesuen bitartez, enpresa arruntetan laneratzeko programen bitartez eta zailtasun bereziak dauzkatela desgaitasunak dituzten pertsonei prestakuntzan eta lanpostuan laguntzeko programen bitartez, desgaitasunak dituzten pertsonak laneratzen izandako esperientzia egiaztatzen duen memoria.

b) Urteko kudeaketa-plana, gutxienez ere honako hauek zehaztuz:

– Garatu beharreko jardunak eta lortu beharreko laneratze-helburuak.

– Artatuko diren desgaitasunak dituzten pertsonen tipologia eta kopurua, honela banakatuta: emakumeak eta gizonak; laneratze berriak eta aurreko ekitaldietan kontratatutako pertsonen jarraipen-prozesuak.

– Garatu beharreko metodologia.

– Ekintzak gauzatzeko tenporalizazioa.

– Eskura dituen azpiegitura, baliabideak eta bitarteko instrumentalak.

– Zerbitzua emateko baldintzak.

– Eskatutako diru-laguntza, kontzeptuen arabera zehaztuta: Enplegu Lagunduaren Unitatea osatzen duten profesionalen soldaten eta gizarte-segurantzaren kostuak, gastu orokorrak, administraziokoak, koordinaziokoak eta leku-aldatzeenak.

c) NANaren fotokopia edo haren nortasun-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena eta eskaera sinatzen duen pertsonak daukan legezko ordezkaritzaren egiaztagiria.

d) Enplegu Lagunduko Unitateetako langileen (haien kontratazioa diruz laguntzen da) urteko ordainsari gordina egiaztatzen duen ziurtagiria.

e) Hirugarren interesdunaren datuen altaren fitxa, erakundearen ordezkariak sinatua eta dagokion bankuak zigilatua, http://www.lanbide.net web-orrian erabilgarri dagoena.

f) Elkarteen, fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuen kasuan, haien eraketaren egiaztagiriak eta, hala badagokio, estatutuak, haien helburu soziala eta kokapena bertan bilduta.

3.– Gutxieneko dokumentazio honen osagarri, erakundeek 10. artikuluan ezarritako elementu baloragarriak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkez ditzakete:

– Zailtasun bereziak dauzkatela desgaitasunak dituzten pertsonak laneratzen edo Enplegu Lagunduaren jardunen arloan proiektu esperimental edo berritzaileetan izandako parte-hartzearen edo esperientziaren memoria deskribatzailea.

– Desgaitasunak dituzten emakumeen lortutako laneratzeen ehunekoaren justifikazioa, laneratzeen guztizkoari dagokionez.

– Desgaitasunaren arloan enpresak sentsibilizatzen izandako esperientzia egiaztatzen duen memoria deskribatzailea.

4.– Diru-laguntzak jasotzeko eskaerak osorik betetzen ez badira edo 2. paragrafoan adierazitako nahitaezko dokumentazioa falta bada, erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan. Halaber, hala egin ezean bere eskaerari uko egiten diola adieraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

5.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

9. artikulua.– Ebazpena emateko eskumeneko organoa, diru-laguntza emateko prozedura, ebazpena, epeak, berraztertzeko errekurtsoa eta publikotasuna.

1.– Lan Aktibazioko Zuzendaritzak du eskaerak izapidetu eta tramitatzeko eskumena, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hori ebaztekoa.

2.– Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, deialdi honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenak emango dira. Programa honen finantziazioari esleitutako baliabide ekonomikoak behar adinakoak ez badira onartu behar diren eskaera guztiak estaltzeko, dagokion lehentasun-ordenaren arabera banatuko dira funtsak, 10. artikuluan aurreikusitako balioespen-irizpideei jarraiki. Horretarako, kide anitzeko organoa sortuko da, eta organo horrek emango du ebazpen-proposamena, organoa honako kide hauek osatuko dutelarik:

Presidentea: Laneratzea Aktibatzeko Zuzendaritzaren Enpresetarako Zerbitzuen Arloaren arduraduna.

Bokalak: Enpresetarako Zerbitzuen Arloko arduradunak hautatzen dituen bi pertsona, haietako batek idazkaritza bere gain hartuko duela.

3.– Prozeduraren ebazpena egin eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, deialdi hau EHAAn argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera baztertutzat jo ahalko da.

4.– Erakunde interesdunak 10 eguneko epea izango du, ebazpena jakinarazten den unetik zenbatzen hasita, emandako diru-laguntza onartzen duela adierazteko. Epe hori onarpenaren esanbidezko jakinarazpenik gabe amaitzen bada, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da eta artxibatu egingo da.

5.– Zuzendari nagusiaren ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jartzeko aukera izango da organo horretan, hilabeteko epean jakinarazpenaren biharamunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik aurrera.

6.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, xedapen honen babesean diru-laguntza zein erakundek jaso duten eta zenbateko laguntza jaso duten eta, bestetik, zein erakunderi emandako diru-laguntzak aldatu diren. Nolanahi ere, diru-laguntzak emateko Ebazpenak berariaz eta banan-banan ere jakinarazi ahal izango dira.

10. artikulua.– Eskaerak balioesteko eta esleitzeko irizpideak.

Deialdi honetara aurkeztutako eskaeren lehentasun-ordena ezartzeko, baliabide ekonomikoak baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko adinakoak ez direnean, eskaerak balioetsiko dira honako irizpide parametro hauek kontuan hartuta:

– Zailtasun bereziak dauzkatela desgaitasunak dituzten pertsonak laneratzen edo Enplegu Lagunduaren arloan proiektu esperimental edo berritzaileetan izandako parte-hartzea edo esperientzia. 1,5 punturekin balioetsiko da erakundeak esku hartu duen proiektu bakoitza, 15 punturaino gehienez.

– Desgaitasunak dituzten emakumeen laneratzeen ehunekoa, lan-merkatu arruntetan laneratzeko programak garatuz lortzen dena, lortutako laneratzeen guztizkoari dagokionez. 10 puntu gehienez. Lortutako laneratze-ehunekoen arabera, bi punturekin balioetsiko da ehuneko-tarte bakoitza, honelaxe: % 20 - 2 puntu, % 30 - 4 puntu, % 40 - 6 puntu, % 50 - 8 puntu eta % 60 - 10 puntu.

– Esperientzia enpresa-sentsibilizazioan desgaitasunaren esparruan. 10 puntu gehienez. Puntu batekin balioetsiko da erakundeak esku hartu duen proiektu edo esperientzia esanguratsu bakoitza.

11. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzeko modua.

Deialdi honetan aurreikusitako ekintzak gauzatzeko emandako laguntzak bi ordainketatan honela zatikatuta ordainduko dira:

a) Lehen ordainketa ba, emandako diru-laguntzaren % 50eko zenbatekoaz, ebazpena igorri eta erakunde onuradunak diru-laguntza onartu ondoren.

b) Bigarren ordainketa, hau da, gainerako % 50aren edo benetan egindako eta justifikatutako gastuekin eta 7. artikuluan ezarritakoaren eta emateko ebazpenaren araberako laneratze-helburuak eta prospekzio-jardueraren helburuak betetzearekin bat etorriz egin beharko den doiketatik ateratzen den zenbatekoaren ordainketa. Bigarren ordainketa hori jardunak amaitzean egingo da, aldez aurretik hurrengo artikuluan aipatzen den Azken Memoria aurkeztu ondoren.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa eta epea.

1.– Diru-laguntzaren finantza-erakundeak Azken Memoria bat aurkeztu beharko du 2014ko otsailaren 28 baino lehen, eta honako dokumentazio hau bildu beharko du:

a) Memoria deskribatzailea, diruz lagundutako aldian Enplegu Lagunduaren Unitateko jardueraren buruzkoa, garatutako jardunei buruzko informazio kualitatiboa ez ezik, egindako jardueratik ateratako ondorio nagusiak ere bilduko dituena. Honako hauek erantsiko zaizkio memoria horri:

– Enplegu Lagunduaren jardunak jaso dituzten eta desgaitasunak dituzten pertsonen izenen zerrenda, laneratze bereziak eta aurreko laneratzeen jarraipenak bereiziz, Ebazpenarekin batera emango den ereduaren arabera.

– Desgaitasunak dituzten eta laneratutako pertsonei egindako lan-kontratuen kopiak.

– Artatutako pertsonen desgaitasuna egiaztatzen duen ziurtagiriaren kopia, dagokion organo eskudunak emana.

– Enplegu Lagunduaren jardunak gauzatu diren enpresekin sinatutako lankidetza-hitzarmenak, Ebazpenarekin batera emango den ereduaren arabera.

– Garatutako prospekzio-jardunen eta kontaktatutako enpresen erregistroa, Ebazpenarekin batera emango den ereduaren arabera.

– Enplegu Lagunduaren jardunetan esku hartu duten prospekziogileen eta lan-prestatzaileen izenen zerrenda, ebazpenarekin batera emango den ereduaren arabera.

b) Memoria ekonomikoa, diru-sarreren eta gastuen balantzea ez ezik, diruz lagun daitezkeen kontzeptu bakoitzaren arabera zehaztuta egindako gastuen laburpena ere bilduko duena. Honako hauek erantsiko zaizkio memoria horri:

– Diruz lagun daitezkeen jardunak gauzatzen dituen Enplegu Lagunduaren Unitateko langileen soldata-kostuei eta Gizarte Segurantzako kostuei buruzko zerrenda xehatua, baita jardunak garatzerakoan egindako gastu orokorrei, administrazioko, koordinazioko eta leku-aldatzeen gastuei eta auditoria-txostenaren gastuei buruzkoa ere.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu dute beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda xehatua.

– Auditorearen txostenak berretsi beharko du aitortutako gastuak egozgarriak direla, diruz lagundutako aldiari dagozkiola, 7. artikuluan aurreikusitako mugei egokitzen direla, balio frogagarri bereko faktura edo kontabilitate-agiriekin egiazta daitezkeela, egiaz ordainduta daudela eta ordainketa gauzatu izana jasota dagoela. Era berean, egiaztatu beharko du justifikatutako gastuaren zenbatekoa diru-laguntzari egozten ote zaion osorik edo zati batean, eta, azkenik, adierazi beharko du egotzitako zenbateko zehatza, eta egiaztatu beharko du behar bezala dokumentatuta daudela gastua egozteko irizpideak eta kalkuluak.

Onuradunak nahi duen auditorea aukeratu eta kontratatuko du, Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako jarduneko auditoreen artean, eta merkatu askeko eta sektoreko batez besteko ordainsariak errespetatuz.

2.– Azken memoria osatzen duen justifikazio-memoria osoa paperezko euskarrian eta euskarri informatikoan aurkeztu behar da.

3.– Dokumentazioa aurreikusiriko epean aurkezten ez bada edo aurkezturiko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ordainduriko diru-laguntzaren zenbatekoak Enplegua Laguntzeko jardunak egikaritzeagatik sorturiko diruz lagun daitezkeen gastuen kostua gainditzen dituela, itzulketa-prozedura abiaraziko da, 17. artikuluan aurreikusiriko prozedurarekin bat etorrita.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan orokorrean ezartzen direnak izango dira erakunde onuradunen betebeharrak, eta bereziki honako hauek:

a) Diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatzea.

b) Diru-laguntza emateko bete beharreko betekizunak eta baldintzak bete direla egiaztatzea.

c) Pertsona onuradunei eta enpresei emandako zerbitzu guztiak doan direla bermatzea.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erakunde onuradunei ematen dizkien sistemetan eta erregistroetan eskatzen den informazioa osatzea, bai prospekziogileen jardunari buruzkoa, bai lan-prestatzaileei dagokiena..

e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin beharreko egiaztatze-jarduerak onartzea.

f) Helburu berberarekin edo antzekoarekin beste edozein Administrazio Publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntza edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea.

g) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako gorabehera edo egoeretatik edozein aldatzen bada gerora, aldaketa objektiboa zein subjektiboa izan, horren berri eman behar du onuradunak.

h) Diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari nabarmen eragiten dioten gorabeheren berri ematea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan jardutea jarduera horiek egiaztatu, jarraitu eta kontrolatzeko prozeduretan.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zigor-prozedura jakinaraztea.

j) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa jasotzen dutela adierazi beharko dute esanbidez erakunde onuradunek, diru-laguntza jasotzen duten eta haien dibulgazioa, hedatzea, edo, hala badagokio, argitaratzea dakarten jarduera guztietan.

14. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Deialdi honen helburuak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapen- eta kontrol-jarduerak egiteko aukera izango du.

15. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, betiere, onuradunak helburu bererako beste edozein diru-laguntza edo laguntza jasotzen duela, eta horren zenbatekoak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandakoari batuta, diruz lagundutako jardueraren onartutako kostu osoa gainditzen duela jakiten bada, emandako diru-laguntza aldatu egingo da, betiere laguntzaren onuradun izateko diru-laguntzen inguruko arauak ezarritako gutxieneko betekizunak betetzen badira, diru-laguntza emateko ezarritako irizpide eta mugak aplikatuz.

16. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin batera ematea.

Orokorrean, deialdi honetan deskribatutako laguntzak bateragarriak izango dira beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuk emandako beste edozein diru-laguntza, laguntza edo diru-sarrerarekin, eta, horrenbestez, izaera osagarria du haiekiko; nolanahi ere, hainbat finantzaketa-iturritatik jasotako laguntzen zenbateko osoak ezin izango ditu gainditu deialdi honen babesean diru-laguntza jaso duten jardueren onartutako kostua. Kostu hori gainditzuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da.

17. artikulua.– Betebeharrak ez betetzea eta itzulketako prozedura.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntza jaso duten erakunde onuradunak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude, edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du; ebazpen horren bitartez, jasotako kopuruak osorik edo zati batean itzuli behar dituztela adieraziko du, eta kopuru horiei diru-laguntza ordaintzen den unetik aurrerako legezko interesak erantsi beharko zaizkie, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, hala xedatuta baitago abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, horrek arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntza jasotzen duen erakundeari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, alegazioak edo egokitzat joko dituen egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio. Prozedura hasteak, hala badagokio, eten egingo ditu oraindik egin ez diren ordainketak.

3.– Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo ez badira onartu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena egingo du. Itzultzeko prozeduraren ebazpena, gehienez ere, sei hilabetean jakinarazi behar da.

4.– Ebazpenak arauren bat bete gabe utzi dela iritziz gero, eta diru-laguntza osorik edo zati bat jasotzeko eskubidea galdutzat ematen badu, interesdunak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-kopuruak; horretarako, bi hilabeteko epea izango du, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

5.– Borondatezko epe horretan diru-laguntza itzultzen ez bada, diru-laguntza berreskuratzeko premiamendu bidera jotzeko izapideei ekingo zaie.

18. artikulua.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutako betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honetan araututako laguntza-eskaerak betetzearen bidez lortutako datu pertsonalak bere titulartasuneko fitxategia batera («Enplegurako eta prestakuntzarako diru-laguntzak») gaineratuko ditu, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren izaera pertsonaleko datu-fitxategiak arautzen dituen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 10eko agindua araututa dago fitxategi hori.

Pertsona interesdunek datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak izango dituzte, legeak onartzen duen eran; horretarako, hori adierazten duen idazki bat igorri beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari (Jose Atxotegi kalea 1; 01009 Vitoria-Gasteiz).

ERANSKINA

ENPLEGU LAGUNDUAREN JARDUNAK EGITEKO LAGUNTZAK DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK LAN-MERKATU ARRUNTEAN SARTZEKO INTEGRAZIO-NEURRI GISA

URTEA:	2013

ESKATZAILEA:	

SARRERA ERREGISTROA

LURRALDE HISTORIKOA		
ARABA	01	
GIPUZKOA	20	
BIZKAIA	48	

LANBIDEK BETETZEKOA

2	0	1	3	E	C	A						

URTEA ESPEDIENTE ZK.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Diru-laguntzaren eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa bat izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

OHARRAK:

Eskaerak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan (José Atxotegi, 1; 01009 Vitoria-Gasteiz) edo Lanbideko enpleguko lurralde-bulegoetan aurkeztu beharko dira.

Horretaz gain, eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

Eskaera formatu digitalean bete behar da, eta lauki bakoitzean zenbaki edo letra bat jarri behar da.

Ez dira onartuko datarik gabe nahiz eskatzailearen izenperik gabe aurkezten diren eskaera-orriak. Eskaerarekin batera orri sorta honen amaieran adierazten diren agiriak aurkeztu behar dira.

DATU PERTSONALAK JASOTZEARI ETA ERABILTZEARI BURUZKO SEGURTASUN POLITIKAREN ONARPENA:

Eman dizkiguzun datu pertsonalak Enplegu eta prestakuntzako diru-laguntzak izeneko fitxategi automatizatuan sartuko ditugu; fitxategiaren kudeatzailea Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua da. Aldez aurretik fitxategi horren berri eman zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, hark baitauzka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak.

Zure datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko aukera ere egongo da, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren (abenduaren 13ko 15/1999) 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Lege horrek bideratutako kasuetan.

Orobat, entitate eskatzaileak agiri hau sinatzerakoan honako hau bermatzen du: jasotako datu pertsonalen titularrei (haien titulartasuna duten fitxategietan sartutako datuez ari gara) Datuen Babesaren Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoaren berri eman zaie aldez aurretik, eta guztiek berariaz eman dute oniritzia.

Bestalde, datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak betez, baduzu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzura jo dezakezu (José Atxotegi, 1; 01009 Vitoria-Gasteiz).

1.– ESKATZAILAREN IDENTIFIKAZIOA:

IFZ.: .....

Sozietatearen izena .....

.....

Kalea: .....

Zk.: ..... Solairu: ..... Letra .....

Herria:: ..... PK. .....

Telefonoa: ..... Faxa: ..... E-posta: .....

LEGEZKO ORDEZKARIA:

Izena: .....

Abizenak .....

NAN: ..... Kargua: .....

Telefonoa: ..... E-posta: .....

HARREMANETAN JARTZEKO:

Izena.....

Abizenak.....

NAN: ..... Kargua: .....

Telefonoa: .....E-posta: .....

2.– LANERATZEKO HELBURUAK

a) Laneratzeak:

% ≥33 mailako desgaitasun intelektuala, gaixotasun mentala edo garun-perlesia duten pertsonen kopurua, gutxienez urte 1eko kontratua.

Emakumeak ..... Gizonak ..... Guztira .....

% ≥33 mailako desgaitasun intelektuala, gaixotasun mentala edo garun-perlesia duten pertsonen kopurua, gutxienez 6 hilabeteko kontratua.

Emakumeak ..... Gizonak ..... Guztira .....

Desgaitasun fisikoa edo sentsoriala izanik, % ≥65eko desgaitasun-maila duten pertsonen kopurua edo % ≥ 33ko desgaitasun-maila, gorra edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonek, gutxienez urte 1eko kontratua.

Emakumeak ..... Gizonak ..... Guztira .....

Desgaitasun fisikoa edo sentsoriala izanik, % ≥65eko desgaitasun-maila duten pertsonen kopurua edo % ≥ 33ko desgaitasun-maila, gorra edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonek, gutxienez 6 hilabeteko kontratua.

Emakumeak ..... Gizonak ..... Guztira .....

b) Jarraipenak:

2012. urtea baino lehen enpresa arruntetan kontratatutako pertsonen artetik, jarraipen-prozesua egingo zaienen kopurua.

Emakumeak ..... Gizonak ..... Guztira .....

2012. urtea baino lehen enpresa arruntetan kontratatutako pertsonekin egindako jarraipeneko eta laguntzeko jardunen guztizko kopurua.

3.– DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKEEN EGINTZA

A) Prospekziogileen kopurua:

Zenbatekoa Guztira Soldaten kostua+Gizarte Segurantza, urtekoa: €

B) Prestatzaileen kopurua:

Zenbatekoa Guztira Soldaten kostua+Gizarte Segurantza, urtekoa: €

C) Gastu orokorrak, administraziokoak eta leku-aldatzeak: €

D) Kontzeptu beragatik bestelako laguntzarik edo beste erakunde batzuen diru-laguntzarik jasotzen du:

Bai ☐ Ez ☐

Erakunde Publikoek diruz lagundutako zenbatekoa: €

Beste erakunde pribatu batzuek diruz lagundutako zenbatekoa: €

Eskatutako diru-laguntza, guztira: €

Eskaera hau oso-osorik bete eta eranskin honen bukaeran aipatzen diren agiriekin batera aurkeztu behar da. Horrela egin ezean, falta diren agiriak eskatuko dira eta, 10 eguneko epean aurkezten ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, dagokion ebazpena eman ondoren.

NORTASUN-DATUAK EGIAZTATZEKO BAIMENA:

Bai ☐ Ez ☐

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari nire datuak elektronikoki egiaztatzeko eta begiztatzeko baimena ematen diot.

.....n ..... (e)ko ..... aren .....(a)

Legezko ordezkaria

Izenpea:

Izpta.: .....
(Idatzi izenpetzailearen izena)

4.– ESTATUTAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA:

1.– Deialdi honetan aipatzen diren diru-laguntzak lortzeko eskaerak aurkezteko, deialdiaren eranskinean azaltzen den eredu ofiziala beteko da, eta http://www.lanbide.net webgunean, Lanbideren Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan eta Lanbideren Lurraldeko Enplegu Bulegoetan egongo da eskuragarri.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein baliabide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

2.– Eskaera-orriarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Erakundeari edo elkarteari buruzko deskribapen-memoria.

- Kokapen fisikoaren xehetasuna eta jarduteko lurralde-eremua.

- Helburu soziala, jardun-eremuak eta erakundearen organigrama.

- Enplegu lagunduaren unitatea osatzen duten prestatzaileen eta prospekziogileen zerrenda, langile horien curriculum vitaea, titulazioa eta eskatutako esperientzia egiaztatzen dituen dokumentazioa, urteko lanaldia eta lan-arloko prestakuntzako edota prospekzioko jardueran duten dedikazioa, betiere Enplegu Lagunduaren jardunekin loturik. Esperientzia egiaztatzeko, proposatutako bakoitzari egindako lan-kontratuak aurkeztuko dira, baita enpresaren ziurtagiri bat ere, bakoitzak zer eginkizun bete dituen egiaztatzeko.

- Enplegu lagunduaren prozesuen bitartez, enpresa arruntetan laneratzeko programen bitartez eta desgaitasunen bat duten pertsonei prestakuntzan eta lanpostuan laguntzeko programen bitartez, desgaitasunen bat eta premia bereizak dituzten pertsonak laneratzen izandako esperientzia egiaztatzen duen memoria. Aipatutako prozesu edo programek administrazio publikoek edo/eta Europako funtsek diruz lagundutakoak izan behar dute.

b) Urteko Kudeaketa Plana.

- Garatu beharreko jardunak eta lortu beharreko laneratze-helburuak.

- Artatuko diren desgaituen tipologia eta kopurua, honela banakatuta: emakumeak eta gizonak; laneratze berriak eta aurreko ekitaldietan kontratatutako pertsonen jarraipen-prozesuak.

- Garatu beharreko metodologia.

- Ekintzak gauzatzeko denbora.

- Eskura dituen azpiegitura, baliabideak eta bitarteko instrumentalak.

- Zerbitzua emateko baldintzak.

- Eskatutako diru-laguntza, kontzeptuen arabera zehaztuta: Enplegu lagunduaren Unitatea osatzen duten profesionalen soldaten eta gizarte-segurantzaren kostuak, gastu orokorrak, administraziokoak, koordinaziokoak eta leku-aldatzeenak.

c) Lanbideri nortasun-datuak elektronikoki begiztatzeko eta egiaztatzeko baimenik ematen ez bazaio, legezko ordezkarien NANaren fotokopia

d) Eskaera sinatzen duen pertsonak duen ordezkaritzaren egiaztagiria.

e) Enplegu lagunduaren Unitateetan dauden eta horien kontratazioa diruz laguntzen den langileen urteko ordainsari gordina egiaztatzen duen ziurtagiria.

f) Hirugarren Interesdunaren Datuen Altari buruzko Fitxa, eskatzaileak eta egoki den banketxeak izenpetu eta zigilatuta.

g) Irabazi-asmorik gabeko elkarteen, fundazioen eta bestelako erakundeen kasuan, haien eraketa egiaztatzen duen dokumentazioa eta, bere kasuan, estatutuak, non haien helburu soziala eta kokalekua azaldu behar diren.

h) Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren zinpeko aitorpena, Deialdian aipatutako kontzeptuei dagokienez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntza publikoen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzultzeko edo zehazpeneko prozeduren egoera.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, beste administrazio publiko batzuetan edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuetan -Europako Funtsak ere barnean hartuta- eskatutako beste edozein laguntza edo diru-laguntza zer egoeratan dagoen (emanda edo izapidetzen), baldin eta deialdi honetan arautu diren eta diru-laguntza jaso dezaketen jardun berak baldin badira.

- Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barnean hartuta.

- Deialdi honetan eta, hala badagokio, ematen den onarpen-ebazpenean eskatutako betekizun eta baldintza guztiak betetzeko konpromisoa.

3.– Gutxieneko dokumentazio honen osagarri, erakundeek 9. artikuluan ezarritako elementu baloragarriak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkez ditzakete:

a) Desgaitasunen bat eta premia bereziak dituzten pertsonak laneratzen edo enplegu lagunduaren arloan proiektu esperimental edo berritzaileetan izandako parte-hartzearen edo esperientziaren deskribapen-memoria.
b) Desgaitasuna duten emakumeen laneratzeen ehunekoaren justifikazioa, lortutako laneratzeen guztizkoari dagokionez.
c) Desgaitasunaren arloan enpresak sentsibilizatzen izandako esperientzia egiaztatzen duen deskribapen-memoria.

4.– Eskaerak deialdi honetan eskaturiko baldintzak betetzen ez baditu, hamar eguneko epean falta edo akatsa konpontzeko eskatuko zaio interesdunari. Hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu horrek.

5.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5.– ZINPEKO AITORPENAREN EREDUA:

Eskatzailaren izena: .....

NAN: .....

Ordezkatutako empresa: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

IFK: .....

ADIERAZTEN DU:

☐ Berak ordezkatzen duen erakundea ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntza publikoen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzultzeko edo zehazpeneko ezein prozeduratan.

☐ Ordezkatzen duen erakundeak indarreko deialdian eta, hala badagokio, ematen den onarpen-ebazpenean eskatutako betekizun eta baldintza guztiak betetzeko konpromisoa hartzen duela.

☐ Ordezkatzen duen erakundea ez dagoela zigorturik deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzak emateko prozeduretan parte hartzeko debekuaz, sexu-arrazoiak direla medio diskriminazioan huts egitearren ezarritako administrazio- edo zigor-arloko zehapenagatik edota Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela-eta ezarritako zehapenagatik.

☐ Ordezkatzen duen erakundeak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Diru-laguntzaren xede d(ir)en Enplegu lagunduaren ekintzari/ekintzei dagokienez:

☐ Ez dela helburu bereko beste finantzabiderik.

☐ ..... erakundeak helburu bera duen beste diru-laguntza bat eman duela eta kopurua honako hau da: ..... €.

☐ ..... erakundean .... €-ko beste diru-laguntza bat eskatu dela, helburu bererako, baina oraindik erabakitzeke dago.

n ..... (e)ko ..... aren ..... (a)

Legezko ordezkaria

Izenpea:

Izpta.: .....
(Idatzi izenpetzailaren izena)

1A ERANSKINA

	Prestatzailea (izen-abizenak)	Jarduerearen hasiera data (1)	Jarduerearen amaiera data (1)	Lanaldi osoko lanorduak urtean, hitzarmenaren arabera	Prestatzailearen kontratu-orduak 2)	ECA Prestasun-edo dedikazio-orduak	Soldata -Kostuak + Gizarte - Segurantza urteko lanaldi osoan (3)	Soldata - Kostuak + Prestatzailearen Gizarte -Segurantza	Soldata Kostuak + ECA-ri Egozgarri Zaion Gizarte - Segurantza (4)
1							€	€	€
2							€	€	€
3							€	€	€
4							€	€	€

	ECA-REN JARRAIPENAK			AURREIKUSITAKO LANERATZE-KOPURUA						(A + B) Jarraipen eta Laneratzeen Zenbatekoa, Guztira	Prestatzaileen Soldata eta Gizarte Segurantza Guztira (5)
	2013 baino lehen jarraitutako pertsonen kopurua	Zenbatekoa jarraitutako pertsona bakoitzeko	(A) GUZTIRA (Gehienez soldataren %25 ECA-ra)	Laguntzaren zenbatekoa		Laneratze - kopurua	Guztira €	GUZTIRA €	(B) GUZTIZKO zenbatekoa laneratzeengatik		
1(*)		850 €	€	1. Kolektiboa:	Gizona 7.800 €			€	€	€	€
					Emakumea 8.580 €						
				2. Kolektiboa:	Gizona 6.600 €			€			
					Emakumea 7.260 €						
				3. Kolektiboa:	Gizona 4.700 €			€			
					Emakumea 5.170 €						
				4. Kolektiboa:	Gizona 4.000 €			€			
					Emakumea 4.400 €						
2(*)		850 €	€	1. Kolektiboa:	Gizona 7.800 €			€	€	€	€
					Emakumea 8.580 €						
				2. Kolektiboa:	Gizona 6.600 €			€			
					Emakumea 7.260 €						
				3. Kolektiboa:	Gizona 4.700 €			€			
					Emakumea 5.170 €						
				4. Kolektiboa:	Gizona 4.000 €			€			
					Emakumea 4.400 €						
3(*)		850 €	€	1. Kolektiboa:	Gizona 7.800 €			€	€	€	€
					Emakumea 8.580 €						
				2. Kolektiboa:	Gizona 6.600 €			€			
					Emakumea 7.260 €						
				3. Kolektiboa:	Gizona 4.700 €			€			
					Emakumea 5.170 €						
				4. Kolektiboa:	Gizona 4.000 €			€			
					Emakumea 4.400 €						
4(*)		850 €	€	1. Kolektiboa:	Gizona 7.800 €			€	€	€	€
					Emakumea 8.580 €						
				2. Kolektiboa:	Gizona 6.600 €			€			
					Emakumea 7.260 €						
				3. Kolektiboa:	Gizona 4.700 €			€			
					Emakumea 5.170 €						
				4. Kolektiboa:	Gizona 4.000 €			€			
					Emakumea 4.400 €						
									GUZTIRA:	€	€

(*) Aurreko orriaren jarraipena.

(1) ECAk proiektua egiten duen urtean jarduerak zer egunetan hasi eta amaitu dituen adierazi behar da.

(2) Diru-laguntzari dagokion urteko kontratu-orduak adierazi behar dira.

(3) Lanaldi osoko lanpostuak urtean dituen soldata-kostuak eta gizarte-segurantzako kostuak adierazi behar dira.

(4) ECAri jardueren hasiera eta amaiera bitartean egozgarri zaizkion zenbatekoak adieraziko dira, prestasun edo dedikazioko orduen arabera.

(5) Diruz lagun daitezke, gehienez, ECAn izandako dedikazioaren soldata-kostuak + Gizarte Segurantza.

1. kolektiboa: % ≥33 mailako desgaitasun intelektuala, gaixotasun mentala edo garun-perlesia duten pertsonen kopurua, gutxienez urte 1eko kontratua.

2. kolektiboa: % ≥33 mailako desgaitasun intelektuala, gaixotasun mentala edo garun-perlesia duten pertsonen kopurua, gutxienez 6 hilabeteko kontratua.

3. kolektiboa: Desgaitasun fisikoa edo sentsoriala izanik, % ≥65eko desgaitasun-maila duten pertsonen kopurua edo % ≥ 33ko desgaitasun-maila, gorra edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonek, gutxienez urte 1eko kontratua.

4. kolektiboa: Desgaitasun fisikoa edo sentsoriala izanik, % ≥65eko desgaitasun-maila duten pertsonen kopurua edo % ≥ 33ko desgaitasun-maila, gorra edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonek, gutxienez 6 hilabeteko kontratua.

1B ERANSKINA

Prospekziogilea (Izen-Abizenak)	Jarduera-ren hasiera-data (1)	Jarduera-ren amaiera-data (1)	Lanaldi Osoko Lanorduak Urtean, Hitzarme-naren Arabera	Prospekzio-gilearen Kontratu - Orduak	ECA prestasun-edo dedikazio - Orduak (2)	Soldata -Kostuak + Gizarte -Segurantza Urteko Lanaldi Osoan (3)	Soldata -Kostuak + Prospekzio-gilearen Gizarte - Segurantza	Soldata -Kostuak + ECA-ri Egozgarri Zaion Gizarte –Segurantza (4)	Bisitatu Beharreko Enpresen Kopurua (Gutxienez 100)	Enpresako Zenba-tekoa	GUZTIRA	Prospekzio-gileak Guztira Eskatu-tako Zenbatekoa (5)
						€	€	€		195 €	€	€
						€	€	€		195 €	€	€
						€	€	€		195 €	€	€
						€	€	€		195 €	€	€
						€	€	€		195 €	€	€
						€	€	€		195 €	€	€
										GUZTIRA	€	€

(1) ECAk proiektua egiten duen urtean jarduerak zer egunetan hasi eta amaitu dituen adierazi behar da.

(2) Diru-laguntzari dagokion urteko kontratu-orduak adierazi behar dira.

(3) Lanaldi osoko lanpostuak urtean dituen soldata-kostuak eta gizarte-segurantzako kostuak adierazi behar dira.

(4) ECAri jardueren hasiera eta amaiera bitartean egozgarri zaizkion zenbatekoak adieraziko dira, prestasun edo dedikazioko orduen arabera.

(5) Diruz lagun daitezke, gehienez, ECAn izandako dedikazioaren soldata-kostuak + Gizarte Segurantza.